



**ZURE FAMILIA
BABESTEKO GIDA**

Fundación **MAPFRE**

Pertsonak, oinarrizko beharrak betetakoan (elikadura, jantzia, etxea, lana, etab.), beren burua bizimodua aldarazi eta arriskuan jar ditzaketen baldintzen aurrean babestu nahi izaten dute.

Gida honek familia batek, gerta daitezkeen gertakizunen aurrean eskura izan ditzakeen soluzio aseguratzaileei buruzko oinarrizko informazioa emateko asmoa du.

MAPFRE FUNDAZIOAREN helburu nagusien artean herritarren aseguru-kultura hobetzeko ekarpena egitea dago. Hori da gida honen zerizana: familiaren esparruan arriskuaren aurreko erantzuna hobetzeko har daitezkeen neurriei buruzko informazio zuzena eta argia ematea.

Dokumentu honek **MAPFRE FUNDAZIOAK** argitaratu dituen Informazio Giden bilduma osatzen du. Gure webgunean doan lor daitezke: www.fundacionmapfre.org

Mercedes Sanz Septién
Zuzendaria
Aseguru eta Gizarte Aurreikuspen Saila
Fundación MAPFRE

AURKIBIDEA

I

ARRISKUAREN AURREKO BABESA

4. ORR.

II

ONDAREAREN BABESA

Automobil-aseguruak

Etxeko aseguruak

12. ORR.

III

PERTSONEN BABESA

Bizitza-aseguruak

Osasun-aseguruak

Familia-asistentzia

26. ORR.

IV

ETORKIZUNERAKO BABESA

Erretirorako aurrezpena

Erretiroaz bestelako helburuetarako aseguruak

Aldizkako-aurrezpen aseguruak

Sari bakarreko aurrezpen-inbertsio aseguruak

Errenta-aseguruak

38. ORR.



I
ARRISKUAREN
AURREKO **BABESA**



Arriskua zer den

Arrisku nozioa oso lotuta dago “mehatxu” terminoarekin eta pertso- nek edo gauzek gorabehera edo kalteren bat jasateko aukera gisa definitzen da.

Arriskua, gure bizitzan zehar, etengabe presente dago. Ez dago bere ondarea edo bere kideen segurtasuna arriskuan jarriko dituzten ez- beharrak sufritzeko arriskuan ez dagoen familiarik.

Arriskuaren aurrean zer egin

Arriskuaren aurrean egin behar duzun lehendabiziko gauza arris- kua saihesteko beharrezkoak diren bitartekoak jartzea da, edo bere ondorioek kalterik txikienak eragin ditzaten saiatzea.

Horretarako prebentzioa dago; helburua eskura ditugun bitartekoe- kin aurrez-aurre topa ditzakegun arriskuak arintzea da. Zuhur gi- datzea, etxean alarma jartzea, kirola egitea, elikadura osasungarria hartzea edo ustekabeak estaltzeko aurreztea gure eguneroko bizi- tzan balizko arriskuak gutxiagotzen lagunduko diguten jarrerak eta jokabideak dira.

Hala eta guztiz ere, badira gure kontrolari ihes egiten dioten eta gure ingurua eta gure burua babesteko modua emango diguten mekanismoak ezartzea eskatzen duten gertakariak edo baldintzak (adibidez, istripu bat edo sute bat). Kasu horietan, aseguruia da paira ditzakegun balizko kalteen ordaina hartzeko modurik onena.

Asegurua zer den

Asegurua, oro har, ondareek edo pertsonak izan ditzaketen izaera ezberdineko arriskuak aurrekontu batean sar daitekeen eta familia-unitateak bere gain erraz har dezakeen aldizkako gastu bilakatzeko duen tresna da. Hori dela eta, arriskuak kudeatzeko modu eraginkorra da.

Batzuetan, bere kideetakoren baten hondamendi ekonomikoa saihesteko, gizarteak arriskutsuak izan daitezkeen egoeren aurrean babestu behar du bere burua; halako egoerak automobilaren erabileraren bezalako ohiko gauzek eragin ditzakete. Halakoetan, derrigorrezko babesaz ari gara, hirugarrenen aurreko erantzukizun-asegurua bitartez, hainbat herrialdeetan ibilgailuen zirkulaziorako halabeharrezkoa.

**Asegurua
elkartasunean
oinarritzen da;
kaltea pertsona
multzo baten
arte banatzeko
modua da**

Asegurua zertan datzan

Asegurua elkartasunean oinarritzen da, izan ere, azken finean, kaltea arrisku beraren mehatxuarekin dauden eta haren aurrean modu solidarioan erantzuten duten pertsona-multzo baten artean banatzeko modua besterik ez da.

Funtzionamendua oso erraza da: aseguru-etxeak ordainketa bana jasotzen du hainbat pertsonarengandik, prima moduan, eta gorde eta inbertitu egiten du; hala, aseguru-kontratuan aurreikusitako baldintza, ezbeharrak alegia, ematen denean, asegurudunari kaltea ordaintzen dio, kontratatutakoari jarraiki. Nolabait, bere aseguru ordaindu duten pertsona guztiek kalte-tuta suertatu diren arazoa konpontzeko ekarpena egiten dute.

Familia babesteko zein bitarteko dauden

Familia da gizartearen zutarri nagusietako bat. Giza Eskubideen Aitorpenaren 16. artikulua dioenez, “familia gizartearen elementu naturala eta funtsezkoa da eta gizartearen eta Estatuaren babesa jasotzeko eskubidea du”. Hori dela eta, herrialde bakoitzak babes hori bermatzeko gai diren sistemak aurreikusi eta ezartzeko beharra du, sistema publiko, pribatu edo mistoen bidez.

Babes-sistema publikoak: Estatuak ezarritako eta herritarren ongizatea eta babesa helburu dituzten sistemak eta neurriak barne hartzen dituzte. Babes horren adibidea Osasun Asistentzia Unibertsala dugu. Herrialde garatu gehienetan ezarrita dago, baita garapen bidean diren herrialde askotan ere. Alemaniak, Erresuma Batuak, Frantziak, Italiak, Australiak edo Kanadak, esate baterako, derrigorrezko osasun-asistentziarako sistema daukate. Osasun-asistentziarako sistemaz gain, badira beste neurri legegile batzuk ere, trafikoa-ri buruzkoak, motordun ibilgailuen zirkulazioari buruzkoak eta bide segurtasunari buruzkoak, adibidez, herritarrak arriskuaren aurrean babesteko derrigorrezkoak diren jardunbideak ezartzen dituztenak.

Familia babesteko bitarteko pribatuak: Gizarte-aseguru publikoekin alderatuta erakunde pribatuak kudeatzen dituztenak dira; aseguru-dunek interesatzen zaizkien estaldurak askatasunez kontratatzen dituzte -aseguru hauek eskaintzen dituzten aukera-sorta zabalaren barruan-, denak ere interes partikularrak babesteko helburuaz.

Enpresa-aseguruak: Enpresek batzuetan bere langileentzat kontratatzen dituztenak dira (pentsio-planak, enpresen gizarte-aurreikuspeneko planak, osasun-aseguruak, etab.)

Banakako aseguruak: inguruan dauzkagun arriskuetatik babesteko askatasunez kontratatzen direnak dira.

Familiaren kezka nagusiak zeintzuk diren

Babesari dagokionez, hiru taldetan bana ditzakegu:

1. Familiaren ondasunaren babesia

Familia-unitateak dauzkan ondasunak gordetzeko kezkaren ondorio da (autoa, etxea, altzariak, tresnak, etab.). Kaltetuta suertatuz gero, ezbehar baten ondorioz etor daitekeen balizko galera ekonomikoa erreparatzean datza. Hori dela eta, honelako galderak eta arazoak planteatu ditzakegu:

“Zer gertatzen da seme-alabek nahi gabe loreontzi bat kalera bota eta bertatik pasatzen ari den norbait jotzen badute?”.

“Aparkatuta zegoen eta autoa mailatuta aurkitu dut”.

“Etxera lapurtzera sartu dira eta gure gauza guztiak eraman dituzte. Zer egin dezaket orain?”.

2. Pertsonen babesia

Osasunaren babesaz, asistentziaren kalitateaz, gaixotasunen prebentzioaz edo ahaideren bat hilez gero pertsonen zainketa emozionalaz ari gara, adibidez.

Pertsonen zuzenean eragiten dieten gertakizunekin loturiko behar guztiak barne hartzen ditu, osasunaren alterazioak adibidez, edo, batzuetan, bere segurtasun psikikoa eta baita heriotza ere. Honelako zalantzak dira:

“Semea zein klinikatan jaioko den aukeratu nahi dut”.

“Hainbat mediku espezialista edo klinika pribaturako sarbi-dea izan nahi dut”.

“Ez dut hiltzen naizenean senideak kezka gehigarririk izatea”.

Pertsonen babesari buruzko kezken artean ustekabeko gorabehera baten aurrean diru-sarrereren balizko galeran oinarritzen direnak ere badira, hauek adibidez:

“Hiltzen banaiz, nola geratuko da nire familia?”.

“Istripu bat izaten badut eta ezinduta geratzen banaiz, zer egoeratan geratuko da nire familia nire soldatarik gabe eta nola hartuko du bere gain nire osasun-egoerak dakarren gastua?”.

3. Etorkizunerako babesa

Etxeko kide guztiei bere aurrezkiak kudeatzeko eta kapital edo errenta bat jasotzea bermatzeko eskaintzen zaizkien alternatiba guztiak barne hartzen ditu, bai erretiroari aurre egiteko, baita beste zenbait helburutarako ere. Gure bizi-kalitateari eustea eta aurrezkiak etorkizuneko ustekabeetara zuzentzea dute helburu: kalteak etxebizitzan, ibilgailuan, erretiroa, ikasketak, etab. Honelako desioei ere erantzuten diete:

“Ahal dudan neurrian, ez dut nire senideek zenbait erosotasuni uko egitea nahi”.

“Seme-alabak unibertsitatera joan daitezen nahi dut”.


“Etxe handiagoa erosi nahi dut, zer gerta ere”.

“Ez diot zahartzaro erosoago eta ustekaberik gabeko bati uko egin nahi”.

Har ditzakegun prebentzio-neurri guztiez gain, aseguruia ere badugu

Zer soluzio dauzkaten eskura familiek

Arrisku horietatik guztietatik babes-teko, har ditzakegun prebentzio-neurri guztiez gain, aseguruia ere badaukagu: ondarearen gaineko aseguruak (etxe-aseguruia, auto-aseguruia), bizi-aseguruak, osasun-aseguruak, heriotza-aseguruak, aurrezpen-aseguruak, erretiro-aseguruak, etab.





II ONDAREAREN **BABESA**



Ondarearen babes zertan datzan

Familia guztiek bere ondareari eustea arriskuan jar dezaketen ez-beharrak paira ditzakete, ondarea familiak daukan ondasunen multzoa gisa ulertuta.

Familia-autoan gertatutako gorabehera batek (istripuak, lapurretak, etab.) edo ohiko etxebizitzan gertatutakoek (lapurretek ere, suteek edo uholdeek) eragindako kalteek gure eguneroko bizitza nabarmen kaltetu dezakete, baita zurekin bizi direnena ere.

Familiak, beren lasaitasunerako, babes-sistemak eskura ditzakete, alarmak, su-itxalgailuak, etab. esaterako eta gainera paira ditzaketen kalteen aurrean estal ditzaketen aseguruak kontrata ditzakete.

Nork kontrata dezakeen ondarearen gaineko aseguru bat

Ondasun baten jabea edo erabiltzailea den persona orok aseguru baten bitartez asegura dezake.

Aseguruduna arriskua bere ondasunetan edo interes ekonomikoan paira dezakeen pertsona izango da eta ezbehar bat ez gertatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko, gordetzeko eta zaintzeko betebeharra izango du edo, hori gertatuz gero, haren ondorioak murriztu eta kalteak areagotzea saihesteko.

AUTOMOBIL-ASEGURUAK

Automobila behar bezala aseguratuta izatea ezinbestekoa da, ibilgailuaren zirkulazioak pertsonentzat eta gauzentzat dakarren etengabeko arriskua dela-eta.

Motordun ibilgailuak gidatzeko legezko erregulazioa gauden herrialdearen arabera aldatzen da.

- European alor horri buruzko arauak homogeenak dira eta derrigorrezkoa da ibilgailurako hirugarrenen aurreko erantzukizun-asegurua edukitzea. Aseguru hori edukitzea garrantzitsua da printzipio garrantzitsuak aplikatzea errazteko, pertsonen eta salgaien zirkulazio librea esate baterako.
- Europako kasuaren aldean Amerika dugu; bertan, herrialdearen eta bertan ematen diren baldintza ekonomikoen arabera, hirugarrenen aurreko erantzukizun-asegurua kontratatzea derrigorrezkoa da ala ez. Zenbait herrialdetan, Haiti, Honduras, Kuba, Uruguay edo Paraguaietan, adibidez, ez dago aseguru horri buruzko inolako legerik.

Automobil-aseguru bat zer den

Automobil-asegurua helburu nagusia hirugarren pertsonen eta beren ibilgailuei eragindako istripuzko kalteak konpondu edo ordaintzea da. Gainera, hainbat prestazio eta zerbitzu barne har ditzake, ibilgailu propioaren kalteak konpontzea adibidez, edo errepedeko laguntza. Oro har, herrialde gehienetako legeriak derrigorrezko aseguru delakoa, normalean hirugarren pertsonen eragindako kalte pertsonal edo materialak -ezarritako legezko mugen barruan, beti ere- estaltzera zuzendurikoa, eta borondatezko

asegurua, derrigorrezko aseguruairen mugez harago doana, baita bestelako hainbat kontingentzia ere, estaltzen duena desberdintzen ditu.

Zer automobil-aseguru mota dauden

Modalitate asko badago ere, aseguru gehienak oinarritzkoenak diren hirugarrenen aurreko erantzukizun-asegurutan eta hirugarrenentzako aseguru kaltetunetan sailkatzen dira. Ibilgailu propioan eragindako kalteak modu askotara estal daitezke; horien artean “arrisku orotakoa” nabarmendu daiteke, babesik handienekoa alegia, baina baita garestiena ere. Arrisku orotakoaren prezioa gutxiagotzeko babestutako kalteak edo aseguratu beharreko zenbatekoak mugatu daitezke, frankiziaren moduko elementuekin.

Frankizia bat zer den eta frankiziadun aseguru bat zein baldintzatan kontratatzea gomendatzen den

Frankizia aseguruduna bere buruaren aseguratzailea deneko zenbatekoa da, ezbeharren bat izatekotan dagokion kalteen parte bere ondarearekin jasango baitu. Aseguru baten primaren zenbatekoa gutxiagotzeko balio du. Zenbait herrialdetan “kengarria” esaten zaio.

Adibidez: Pertsona batek automobil-aseguru bat kontratatzen badu, 200 euroko frankiziarekin, eta ezbehar bat izaterakoan kalteak 1.500 euroan balioesten badira, zenbat ordaindu beharko du aseguru-etxeak? Erantzuna 1.300 euro da.



Nire aseguruak atzerrira bidaiatzean zer estaltzen duen

Erantzukizun zibilak hirugarrenei eragindako kalteak estaltzen ditu: Oso garrantzitsua da zein herrialdera goazen jakitea eta aldez aurretik gure aseguru-etxeak kontratatuta dauzkagun bermean zabaltzea ziurta diezagukeen egiaztatzea. Herrialde bakoitzak legezko araudi ezberdina dauka trafikoari dagokionez.

Txartel berdea zer den

Txartel berdea atzerriko herrialde batean istripua eragin den herrialdeko Motordun Ibilgailuen Erantzukizun Zibileko Aseguruari buruzko Legean ezarritako gutxieneko helmena eta mugak dituen aseguruia daukazula ziurtatzen duen nazioarteko egiaztatzea da.

Sistema hori, hasiera batean, iparraldeko herrialdeetan ezarri zuten eta gaur egun berrogei herrialdetan indarrean dago, ia Europako guztietan.

Bidaiako laguntzaren estaldura kontratatzea komeni al da?



Ez da derrigorrezkoa, baina komenigarria da beti. Errepideko laguntza oso estaldura garrantzitsua da, urrutira bagoaz edo atzerrira bidaiatu behar badugu batez ere. Halakorik ez badugu, gure autoa edo bertan bidaiatzen duten pertsonak jasotzeagatik ordaindu beharreko kostua oso altua izango da. Edonork izan dezake matxuraren bat edo istripuren bat inoiz.

Ezbehar bat izanez gero, zer egin behar dut?

Ezbehar bat izanez gero, egin beharrekoa **BAS siglekin laburbiltzen da**: Babestu, Abisatu eta Sorotsi.

Babestu. Lehenik eta behin ingurua babestu behar da, talka eta harapatze gehiago gerta ez dadin, askotan gertatzen baita hori. Horretarako, ibilgailua errepidetik kanpo aparkatu edo larrialdietako zerbitzuentzat sarbide bat libre uzten saiatu behar duzu. Garrantzitsua da keinukariak piztuta uztea, txaleko islatzailea erabiltzea eta larrialdi-triangeluak edo ezbeharra adierazten duten seinaleak behar bezala jartzea.

Gauzez baldin bada, argiak piztuta utzi behar dituzu, ezbeharra pairatu duten autoak argitzen saiatuz. Ondoren ibilgailuak ibilgetu eta motorra itzali beharko zenuke, eta istripuaren inguruan erretzea saihestu.

Abisatu. Larrialdi-zerbitzuetara deitu baino lehen egoera azkar aztertu behar duzu, kaltetutako pertsonen egoerari eta ibilgailuen kopuruari buruzko datuak eman ahal izateko erabakigarria izango delako, baita errepidearen izena eta istripua gertatu den kilometro-puntua ere. Garrantzitsuena lasai egotea da, eta behar bezala identifikatzea.

Sorotsi. Biktimen arretari dagokionez, halakorik egonez gero, egin beharreko lehendabiziko gauza bakoitzaren egoera ebaluatzea da eta lehendabizi larrienak artatzea. Egiazta ezazu bere kordean diren, arnasa hartzen duten, pultsua edo odoljarrio edo traumatismo garrantzitsurik ote duten. Ez duzu inoiz istripua sufritu duen norbait ibilgailutik atera behar, ezta mugitzen saiatu behar ere, hiltzeko arriskuan ez badago eta istripua izan duen motorzale bati ez diozu sekula kaskoa kendu behar.

Egoera kontrolpean dagoenean, kontrako ibilgailuaren ahal beste datu hartu behar dituzu, eta ahal bezain laster zure aseguru-etxeari jakinarazi.

ETXEKO ASEGURUAK

Bizitzan egiten diren inbertsiorik garrantzitsuenetakoen artean, zailentzarik gabe, etxebizitza bat erosteko egiten den inbertsioa dago.

Etxean askotan ezbeharrak gertatzen direnez, ezinbestekoa da balizko ezbehar baten ondorioz etor daitezkeen kostu ekonomikoak gure gain hartzea bermatuko duen aseguru-poliza egokia edukitzea.

Etxeko aseguru bat zer den

Etxeko aseguruak, normalean, arrisku eta baldintza ugari estaltzen ditu eta etxebizitzan eta bertan bizi direnengan gerta daitezkeen arazoei babes globala emateko helburuaz.

Mota horretako aseguruari **arrisku anitzekoak** deritze eta, funtsean, bi estaldura-mota barne hartzen dituzte:

- Erantzukizun zibilekoak, hirugarrenei eragindako balizko kalteengatik, esate baterako bizilagun baten etxea bustitzea, loreontzi bat erorita pertsona bat edo auto bat kaltetzea, jabetzan bizi direnek eragindako kalteak, ez kontratuaren hartzaileak bakarrik eragindakoak (seme-alabak, maizterrak, maskotak...), etab.
- Ondarearekin loturiko arriskuak (lapurreta, sutea, uholdea, etab.), aseguru-etxeek taldetan sailkatu ohi dituztenak, eragiten dituzten arazoien arabera (suteak, urak eragindako kalteak, kalte elektrikoak, hausturak, etab.).

Gainera, aseguru honetan, arrisku anitzekoa denez, beste hainbat estaldura barne har ditzake: defentsa juridikoa, etxeko laguntza, maskotentzako aseguruak, etab.

Derrigorrezkoa al da etxeko aseguru edukitzea?

Oro har ez da derrigorrezkoa, baina etxebizitza familia batek dauzkan ondasunik garrantzitsuenetako bat izan ohi denez, ezbehar batek gure ondareari ekar diezaiokeen galera ekonomikoa murrizteko aukera ematen digun poliza bat kontratatzea da normalena.

Zenbait herrialdetan aseguru bat edukitzea derrigorrezkoa da, etxearen gain hipoteka edo kargaren bat dagoenean.

Etxeko aseguru batean zer ondasun diren eduki edo edukitzaile

Aseguruari dagokionez, edukia mugigarriak diren ondare-artikulu guztien multzoa da, hau da, eraikinaren egiturari lotuta ez daudenak. Adibidez, etxeko edukiaren parte izango dira: altzariak, etxetresna elektrikoak, jantziak, apaingarriak, bitxiak eta edergarriak eta etxeko beste hainbat ondasun osagarri.


Edukitzalea eraikinaren egitura da. Polizan zer adosten den, polizak barne hartu ohi ditu eraikuntza nagusien multzoa edota osagarriak, zimentazioak eta instalazio finakoak barne. Baita sabai faltsuak, margotutako paperak, margoa, zoruari, hormei edo sabaiei itsatsitako egurrak eta moketak, baita pertsianak, hesiak eta ixteko hormak ere, eraikinetik aske egon ala ez.

Oro har eta adibide bitxi gisa, zera esan genezake: “eraikinari buelta emanaz gero”, erortzen den guztia edukia da eta edukitzailea, berriaz, bertan geratzen dena.

Nire etxebizitza behar bezala aseguratzeko kontuan zer hartu behar dudan

Polizan edukiaren eta edukitzailearen balioak behar bezala jaso behar dira, behar bezala aseguratuta egoteko.

Gure etxebizitzako planoaren gainean proba egin dezakegu, adibidez:



Aseguru-etxeek kalkulua etxebizitzako eraikitako metro koadroen eta eraikuntza-motaren arabera egin ohi dute, kapital asegurarari bat aholkatuz, baina balioespen ahal bezain zehatzera egokitzea komeni da. Kontuan hartu behar da balioespen horretarako berreraikuntza-ren balioa aintzat hartzen dela, ez etxebizitzaren salmenta-balioa.

Edukiari dagokionez (altzariak eta gauza pertsonalak), aseguru-etxeak kapital asegurarari bat aholkatu ahal izango du, baina balioespen ahal bezain zehatzera egokitzea komeni da. Horretarako irizpide hauek aintzat hartu behar dira:

- Objektu artistikoak edo historikoak eta bildumak: arte espezializatuko merkatuko balioa.
- Gainerako altzariak (bitxiak barne): berriro jartzeko edo artikulua berri batengatik aldatzeko balioa.

Denbora joan ahala polizak eguneratu behar al ditut?

Egin behar duzu, bai. Bizitzan zehar ondasunak pilatzen eta etxebizitza edo etxebizitzak hobetuz joan ohi gara eta horrek guztiak zure aseguru-polizan isla izan behar du, behar bezala aseguraturuta egon zaitez.

Azpiaseguru bat zer den

Aseguratutakoaren batura aseguraturako ondasunak (etxebizitza eta altzariak) berreraikitzeko edo berriro jartzeko balioa baino txikiagoa denean ematen den egoera da. Hau da, ezbeharren bat gertatuz gero azpiasegurua baldin badago, aseguraturakoaren proportzioa jasoko duzu.

Adibide honek aipatutakoa argituko du: 100.000 euroko balioa duen etxebizitza bat sute-arriskuaren kontra 50.000 euroko balioaz aseguratzen bada, azpiasegurua dago. Ezbehar batean haren erdia suntsituta geratzen bada, aseguru-etxeak (arau proportzionalari jarraiki) 25.000 euroko kalte-ordaina besterik ez du emango (aseguratutako kapitalaren erdia). Hori dela eta oso garrantzitsua da zure etxeko edukiaren eta edukitzailearen balio ekonomikoa polizan behar bezala jasotzea.

Nire etxearen mantentze-mailak aseguru-kontratuari eragiten al dio?

Aseguruek ez dituzte aseguratutako ondasunaren narriatzeak eragindako kalteak estaltzen (teilatuen edo hodien higadura, denborak eragindako buxadurak, etab.), istripuz gertatutakoak besterik ez. Hori dela eta garrantzitsua da etxea egoera egokian izatea, erabilerak eta zahartzeak eragindako ustekabeko gastuak saihesteko.

Etxearen babes-mailak aseguru-kontratuari eragiten al dio?

Bai, aseguru-etxe askok ondareak paira ditzakeen kalteak txikiagotu ditzaketen neurriak hartzea positiboki balioesten dute (suteen aurkako babesak, burdin hesiak leihoetan, alarmak, etab.), bertan kalterik gertatzeko arriskua murriztea dakartelako.

Nire bizilagunen erkidegoak asegururik ez badauka zer gertatzen den

Zure etxeko aseguruarekin dagokizun erkidegoaren zati proportzionala estali ahal izango duzu.

Alokatuta bizi banaiz, etxeko asegururik eduki behar al dut?

Bai. Alokatuta dagoen maizterraren ondasunak babesteko modua ematen duten aseguruak daude, aseguru beharreko ondasunak horiek edo antzeko ezaugarriak dituztenak berriro jarri edo aldatzeko kostuarengatik.


Ezbehar bat izanez gero, zer egin behar dut?

Etxean topatu ditzakegun ezbeharrak oso desberdinak izan daitezke, eta hainbat arrazoi eta faktorerengatik gerta daitezke. Ondoren urratsik komunenen berri emango dizugu, baina egoeraren arabera aldatu egingo dira. Ez da gauza bera, adibidez, lapurreta bat, sute bat edo kristal bat haustea.

Larrialdietako zerbitzuetara deitu beharrik ez baduzu, garrantzitsuena, etxeko ezbehar bati aurre egin behar diozunean, lehenik eta behin eragindako kaltea murrizten saiatzea da (txorrota edo ur-ixuria, elektrizitatea kentzea kalte elektrikoen kasuan, etab.).

Ezbeharra ahal den neurrian kontrolpean eta egonkortuta, garrantzitsua da lasai egotea eta aseguru-etxera deitzea, arrazoa eta gertatutako kalteak azalduz, profesional bat bidaliz berehala ekiteko modurik balego ere.

Beharrezkoa bada, behar duzun profesionalaren esku-hartzearen faktura eskatzea garrantzitsua da eta kaltetutako ondasunak gordetzea, ezbeharra berritzeko eta balioesteko beharrezkoak izango baitira. Ahal dela, ez ezer ukitu peritua edo baloratzaileria heldu arte.





PERTSONEN
BABESA



Babes pertsonala zertan datzan

Familiak lanak izan ohi dituzte bere kideetakoren baten galera ekonomikoki gainditzeko.

Estatistikek diotenez, pertsona gazteen heriotzen eta ezintasunen ehuneko handi bat istripu baten ondorio da; sekula ez gaude halako egoeretarako prest, aurreikuspenik izan ez badugu batez ere.

Ezintasun-egoerek minusbaliatuta geratu den pertsonak lanean ari zelarik jasotzen zituen diru-sarrerak alde handiz gainditzen dituzten gastuak eta beharrak eragiten dituzte.

BIZI-ASEGURUAK

Bizitza-aseguru bat zer den. Zertarako balioduen

Bizitza-aseguru batek balizko behar ekonomiko bati aurre egiteko bermearena egiten du; onuradunak asegurduna hilez gero diru-kopuru jakin bat jasoko du, hortaz. Kontratua sinatzean, aseguru-etxeak bere gain hartzen du onuradun gisa izendatzen diren pertsoneri, heriotzaren unean, diru-kopuru jakin bat ordaintzeko konpromisoa.

Bizitza-aseguruen funtsezko ezaugarria da kontratuan hitzartutako kopuruaren ordainketa asegurdunaren heriotzaren edo biziraupe-naren araberakoa dela.

Ezin da gizakion bizitza baloratu. Hala ere, pertsona baten heriotzari lotutako behar ekonomikoen zenbatekoa baloratzeko modua dago.

Poliza batean bizitza nola baloratzen den

Ezin da gizakion bizitza baloratu. Hala ere, pertsona baten heriotzari loturiko behar ekonomikoen zenbatekoa balioestea badago, bere irabazien diruzko balioari erreparaturaz. Bizitza-aseguruak onuradunen gastu-mailari eusteko balio izango duen diru-kopurua islatu behar du; garrantzitsua da polizan aseguraturako prestazio eskasa ez

ezartzea eta horretarako estali beharreko azterketa lasaia eta zorrotza aholkatzen da.

Bizitza-aseguru batetik zer itxaron daitekeen

Gaixotasunak edo istripuak eragindako heriotzaz gain, polizan beste hainbat estaldura ere sar daitezke, esate baterako asegurudunaren ezintasuna.

Ezintasun edo baliaezintasun-aseguru bat zer den

Aseguru honek ezintasun edo baliaezintasun-egoera baten aurrean sortzen diren balizko beharrak aritzeko helburua du, arreta mediko espezializatua behar dutelako; hortaz, gastuek gora egiten dute eta pertsona horrek lanerako duen gaitasunak ere behera egiten du eta, beraz, diru-sarrerak sortzeko gaitasunak ere.

Bizitza-aseguru bateko onuradunak nortzuk izan daitezkeen

Asegurudunak izendatzen duen pertsona oro izan daiteke. Bestetik adierazi ezean, aseguru-etxeek aukera ezberdinak hartu ohi dituzte, baina hau da ohikoena: ezkontidea; halakorik ez badago, seme-alabak; halakorik ez badago, legezko oinordekoak.

Berariazko izendapena beste aukera bat da, hots: onuraduna asegurudunak berariaz erabakitzen duena izango da.

Lanean ari naizen enpresak derrigor bizitza-aseguru bat kontratatu behar al dit?

Ez, herrialde edo eskualde bakoitzaren arabera eta egiten duzun jarduera arautzen duen hitzarmenaren arabera izango da eta ez bizitza-aseguruetarako bakarrik, baita istripu-aseguruetarako ere.

Hildakoren batek bizitza- edo istripu-asegururik ote zuen nola jakin dezakedan

Zenbait herrialdetan erregistro ofizialak daude, eta hildakoak bizitza- edo istripu-asegururik ote zuen kontsulta dezakezu haietan.

Bizitza-aseguru baten ordainketa nork bermatzen eta gainbegiratzen duen

Herrialde bakoitzean horretarako eskumena duten erakundeek aseguru-etxe guztiak gainbegiratu eta arautzen dituzte; erakunde horiek konpainiek bete behar dituzten kaudimenari eta finantza-in-darrari buruz eskatzen diren betekizunak egiaztatzen dituzte.

OSASUN-ASEGURUAK

Osasun-asistentzia publikoa eta pribatua

Osasun-asistentzia unibertsala herrialde garatu gehienetan eta garapen-bidean diren askotan ematen da. Gainera, gehienetan osasun-asistentzia pribatua ere badago aldi berean, osasun-aseguruen bitartez ematen dena.

Osasun-aseguru bat zer den

Osasun-aseguruak osasun- eta asistentzia-estaldura ematen dio asegurudunari, baita, batzuetan, laguntza ekonomikoa ere, gaitz, gaixotasun edo istripuren bat izatekotan.

Zer osasun-aseguru mota dauden

Hitz batean, nagusitzat jo ditzakegun hiru osasun-aseguru mota daude:

1. Osasun-asistentzia

Aseguru-modalitate horrekin, asegurutunak asistentzia-estaldura mediko-kirurgikoa jasotzen du, aseguru-etxearekin hitzartutako profesional-talde eta zentro medikoen artean.

Estaldura nagusiak zerbitzuen prestazioak dira. Ezin da diruzko kalte-ordainik eman osasun-asistentziako zerbitzuaren orde. Oinarriko asistentzia-zerbitzua izaera ekonomikoko hainbat prestazio-rekin osa daiteke, edo bestelako estaldura osagarriekin. Adibidez, istripu pertsonaletarako estaldura, aldi baterako errenta kobratzea, zilbor-hesteko zelula amak gordetzea, etab.

2. Osasun-gastuak itzultzea

Aseguru-modalitate honen bitartez, asegurutunak, polizan ezarritakoaren barruan, edozein sendagile edo ospitalera jo dezake, munduko edozein tokitan, behar duen osasun-laguntza jasotzeko. Berak ordainduko ditu eragindako osasun-gastuak eta, ondoren, aseguru-etxeari faktura eta medikuaren txostena bidaliko dizkio, honek dirua itzul dakion.

3. Kalte-ordaina

Asegurutunak polizan ezarritako kopuru ekonomikoa jasotzen du, bere osasun-egoerari loturiko hainbat baldintza jakin emanez gero (ospitaleratzeak, laneko baja, etab.).

Zure beharretara hobekien egokitzen den aseguruari buruzko behar bezalako informazioa jaso behar duzu.

Osasun-aseguru bat kontratatu baino lehen zer jakin behar duzun

Zure beharretara hobekien egokitzen denari buruzko behar bezalako informazioa jaso behar duzu.

Produktuen osakeran aldea dago eta horrek eskaintzen dituzten estaldurak desberdinak izatea dakar. Ospitaleko estaldura ote dagoen aztertu

behar duzu (edozein arrazoirengatik ospitaleratzea, kirurgia-ebakuntzak, espezialista eta proba medikoetarako sarbidea, edo medikuntza anbulatorioa bakarrik), edo hainbat gaitz jakin besterik estaltzen ez ote diren (minbiziaren edo gaixotasun larrien aurkako estaldurak).

“Aurrexistentziak” zer diren

Asegurudunak osasun-poliza kontratatu baino lehen diagnostikatu-tako gaixotasunak edo gaitzak dira. Aitortzea komeni da, izan ere, egiten ez badugu, aseguruak ez estaltzea gerta daitekeelako. Aitortzen ditugunean, dagokion balioespen medikoaren ostean estal daitezke, edo kontratu horretarako berariaz bazter gera daitezke. Hainbat osasun-poliza kolektibotan aurrexistentziak sar daitezke.

Osasun-asegurua kontratatzen duzun unetik erabili al dezaket?

Noski baietz. Dokumentazioa jaso eta ordainketa formalizatu den unetik bertatik estaldura-aldia indarrean sartzen da eta behar

izanez gero mediku-taldearen zerbitzuak erabiltzen hasi ahal izango zara. Hala ere, kontuan izan behar duzu zenbait tratamenduk edo diagnostikok “gabealdia” izeneko tarteak daukatela; epealdi horretan ez dute efekturik izango eta, beraz, ez daude estalita.

Gabealdia zer den eta noiz ken daitekeen

Zenbait aseguru-kontratutan, polizaren estaldurek edo horietako batzuek efekturik ez daukaten hasierako tarteak da.

Aseguru-etxe berean polizaren modalitatea aldatzen denan ken daiteke (estaldurarik zabaltzen ez badu, beti ere) edo osasun-konpainiaz aldatzean, konpainia zaharraren estaldura berriarekin lotuz. Aseguru kolektibo batzuen kasuan, negoziatutakoaren eta baldintza partikularretan hitzartutakoaren arabera.

Ba al dago ordainketa frankiziatu-rik osasun-aseguru-etan?

Bai. Erabiltzen den aseguru-motaren arabera, adibidez:

Osasun-asistentziako aseguruak: Zerbitzu baterako sarbidea izateagatik ordaindu beharreko hitzartutako prezioa da (hortzetako zerbitzua, errefrakzio-kirurgia, etab.).

Kalte-ordaineko aseguruak: Denbora-tarte horretan aseguru-etxeak ez dio asegurdunari hitzartutako kalte-ordaina ordainduko.

Osasun-aseguru kolektiboak eta enpresakoak zer diren

Familiako edo banakako osasun-polizez gain poliza kolektiboak ere badaude. Enpresen kolektiboen kasuan, zergei dagokienez interesgarriak direlako kontratatzen dira, eta langilearen ordainsariaren parte gisa. Bestalde, partikularrak poliza kolektibotan biltzen dira, beren ezaugarrien arabera zenbait abantaila negoziatzeko (medikuen elkargoa, esate baterako).

Atzerrian, zer zerbitzu-mota erabili ahal izango dut osasun-aseguru pribatua badaukat?

Aukeratu duzun poliza-modalitatearen arabera izango da, eta baita kontratatzen duzun aseguru-etxearen arabera ere.

Zenbait kasutan hitzartutako zentroetara bakarrik joan ahal izango zara; bestetan, aldiz, itzulketarako eskubidea izango duzu; eta, beste hainbatetan, larrialdietarako asistentzien kasuan bakarrik erabili ahal izango duzu, edo gaixotasun larri bat izanez gero bigarren iritzi medikoa lortzeko.

FAMILIARI LAGUNTZEA

Familiari laguntzeko aseguru bat zer den

Zerbitzuak emateko aseguru bat da. Mota honetako aseguruetan, aseguratzailaren betebeharra asegurudunari polizan kontratatutako zerbitzuak ematea da. Aseguru horien artean daude osasun-laguntzakoak, bidaiako laguntzakoak, defentsa juridikokoak eta heriotzarako laguntzakoak.

Bidaiako laguntzarako aseguru bat zer den

Aseguru-modalitate honekin asegurudunari bidaiari sortzen zaizkion hainbat gorabehera konpontzera zuzenduriko zerbitzuak bermatzen dira.

Besteak beste, osasun-laguntza, ostatua, ekipajeak galtzeagatiko konpentsazioa, defentsa juridikoa, bidaiari bat bertan behera gertatzeagatiko kalte-ordaina, gaixotasun edo heriotzarengatiko herriratzea, etab. eman daitezke.

Defentsa juridikoko aseguru bat zer den

Asegurudunari laguntza juridikoko zerbitzua ematen dion asegurua da, judiziala eta estrajudiziala, polizan ezarritako baldintzen arabera.

Enpresa batekiko lan-gatazka pertsonalak edo, adibidez, kaleratze baten aurkako erreklamazio bat dira aseguru-etxe baten defentsa juridikoko ohiko bi adibide.

Heriotza-aseguru bat zer den

Maite dugun norbait hil eta gero, dolu izenez ezaguna den saminezko aldi bat bizi izaten da. Baldintza horietan zaila izaten da halako gertakari tamalgarri batek dakartzan gestio guztiei erantzutea: administrazio-izapideak, leku-aldaketak, ehorzketa...

Hori guztia heriotzarako laguntza-aseguru batek estaltzen du, hots, aseguru-etxeak, aseguruduna hilez gero, beharrezkoak diren zerbitzuak emateko familiako edo banakako polizak, gertakariak dakartzan gestio guztien ardura hartuz.

Zergatik den garrantzitsua heriotzarako laguntza-aseguru bat kontratatzea

Zure azken borondateari jarraiki nolako arreta jaso nahi duzun, eta non aukera dezakezulako. Gainera, aseguru honekin zure familiari kezka gehiago eta erabakiak hartzeko lana kenduko dizkiozulako, balizko emozio-krisian daudenean.

Zein heriotzarako-aseguru mota dauden

Heriotza-asegurua primak ordaintzeko moduaren arabera, hiru modalitate nagusi daude:

Prima naturaleko aseguruak: Ordaintzen den kopuruak gora egiten du asegurudunaren adinak gora egin ahala. Hau da, gutxiago ordainduko duzu gaztea zarenean eta gehiago urteak bete ahala.

Prima berdinduak polizaren indarraldi osoan prima berdina izatea bilatzen du.

Prima bakarreko aseguruekin poliza behin ordainduko duzu, eta ez duzu etorkizunean gehiago ordaindu beharrik izango. Norbere baldintza pertsonalen arabera, modalitate bat edo beste hautatzea izango da komenigarriena.



IV
ETORKIZUNERAKO
BABESA



Aurrezkia zer den

Aurreztea hileroko lortzen duzun diru-sarreraren parte bat etorkizunerako gordetzeko bereiztea da. Aurrezteko modu ezberdinak daude, baita helburu horretarako hainbat finantza-tresna ere.

Aurreztearen helburua zein den

Aurreztearen garrantzia bere helburuan datza: etorkizuneko behar ekonomikoei aurre egiteko edo aurreikusteko dirua edukitzea. Hauek izan daitezke etorkizuneko behar horietako batzuk:

- Autoa aldatzea.
- Etxe bat erostea.
- Negozio bat jartzea.
- Seme-alaben ikasketak bermatzea.
- Oporraldia prestatzea edo bidaiatzea.
- Erretiroa osatzea.
- Osasun-larrialdiei aurre egitea.
- Bestelako ustekabeak.

Aurrezteko zer produktu dauzkadan eskura

Hauek dira aurrezteko produkturik ohikoena:

- Aurrezpen-aseguruak.
- Errenta-aseguruak.
- Kontu korronteak.
- Eperako gordailuak.
- Errenta finkoak edo letrak, bonuak, obligazioak, etab.

- Errenta aldakorrek edo akzioak.
- Inbertsio-funtsak.
- Pentsio-funtsak.

ERRETIORAKO AURREZPENA

Herralde bakoitzak bere pentsio-sistema propioa dauka, baina ematen du horietan guztietan erretirorako modu autonomoan aurreztea komeni den ustea dagoela

Herralde bakoitzak bere pentsio-sistema propioa dauka, baina ematen du horietan guztietan erretirorako modu autonomoan aurreztea komeni den ustea dagoela.

Zergatik aurreztu behar dudan erretirorako

Erretiratutakoan bizi-mailari eta diru-sarreraren egonkortasunari eustea bermatzeko beharrezkoa da aurrezpen-sistema pribatuetara jotzea pentsio-sistema publikoen bitartez pentsio modura lortu ahal izango dituzun diru-sarrerak osatzeko, halakorik izanez gero.

Estatu gehienek aurrezpen pribatua bultzatzen dute, abantaila fiskalak emanez, honelako produktuak kontratatzen direnean:

- Pentsio-funtsak.
- Erretirorako aseguruak.

Produkturik onena aukeratzeko zer izan behar dudan kontuan

Erretirorako aurrezteko produktu bat aukeratzeko, hainbat aldagai aintzat hartu behar dira:

- Kontratu-hartzailearen profila (kontserbadorea, tartekoa edo agresiboa).
- Fiskalitatea.
- Likideziaren beharra.
- Merkatuetako egoera.

Parametro horiek guztiak baloratzen laguntzeko, profesional baten aholkua izatea gomendatzen dizugu.

ERRETIROA EZ DEN BESTE HELBURUETARAKO AURREZTEA

Nire dirua nola aurreztu edo inberti dezakedan

Aurrezteak etorkizuneko behar ekonomikoak aurreikusi eta aurre egiteko modua ematen digu. Aurreztutakoa inbertitzearen helburua aurreztutako kopuruen errendimendua lortzea da.

Normalean, gure aurrezkia errentagarritasuna lortzeko berrinbertitzen ditugun aldizkako diru-sarrerekin sortzen da.

Aurrezpen-aseguru bat zer den

Bizi-aseguru modalitate bat da; haren bitartez asegurdunari kapital jakin bat ordaintzen zaio, epe bat mugaeguneratutakoan.

Asegurudunaren ekarpenak kapitalizatu egiten dira, epe ertain eta luzean errentagarritasun handiagoa lortzeko.

Aurrezpen-aseguruak mistoak izan ohi dira. Hala deritze aurrezpen-aseguru eta bizi-aseguru bana uztartzen dituztelako; modu horretan kapital bat bermatzen dute bizirik iraunez gero (bizi-aurrezpena) eta baita heriotzaren kasurako kapital bat ere (bizi-arriskua).

Bankuek bakarrik eskaintzen al dituzte bankuko produktuak eta aseguru-etxeek aurrezpen-inbertsio aseguruak?

Ez. Batzuek zein besteek bi produktu-motak eskaintzen dituzte, bere merkaturatze-sareen bitartez; egia da, hori bai, hainbat aseguru-etxeek ez dituztela “berez” bankuko produktuak eskaintzen (kontu korronteak eta gordailuak), finantza-erakundeekin hitzarmenik ez dauzkatelako.

Oso garrantzitsua da aseguru-etxeek mota guztietako hainbat betekizunekin bat etorri behar direla nabarmentzea (juridikoak, ekonomikoak eta finantzazkoak), bere konpromisoak bermatze aldera

Aseguru-etxeek nire aurrezkoa nola bermatzen duten

Oso garrantzitsua da aseguru-etxeek ezin dituztela inbertsioak bere nahierara egin nabarmentzea; mota guztietako hainbat betekizunekin bat etorri behar dira (juridikoak, ekonomikoak eta finantzazkoak), bere konpromisoak bermatze aldera. Gainera, eragiketarak herrialde bakoitzean egoki den erakunde arautzailearen kontrolpean daude.

Aurreztaileari errendimenduan nola ordaintzen zaizkion

Kontratututako produktuaren arabera. Adibidez, zenbait kontu, gordailu eta baita hainbat inbertsio-funtsetan ere, aurreztaileari sortutako interesak aldeztu aurretik likidatzen zaizkio (hiru hilean behin edo hilean behin). Beste zenbait produktutan, aurrezpen-inbertsio-ko aseguru gehienetan adibidez, edo inbertsio-funtsetan, sortutako interesak kapitalari gehitzen zaizkio eta kontratua mugaegunera-tzean jasotzen dira.

Aurrezpen-produktu guztiek zerga berdinak ordaintzen al dituzte?

Ez. Zenbait herrialdeetako legeriek aurrezpen-aseguruek fiskalitate onuragarriagoak izatea eragiten dute, beste zenbait finantza-produktuen aldean. Eragiketa baten errentagarritasuna bere finantza-errentagarritasunak ezartzen du, baina baita zergetan aurrezten dugunak ere. Batzuetan, finantza-errentagarritasun txikiagoa duten produktuak, zerga-osagaia gehitzean, aukerarik onuragarriena izan daitezke.

Zer izan behar duan kontuan aurrezteko produktu bat aukeratzean

Oso garrantzitsua da aurrezkiaren helburua zein izango den zehaztea eta zure behar eta helburuetara hobekien egokitzen den produktua bilatzea, produktu bakoitzaren finantza- eta zerga-errentagarritasuna, likidezia eta arriskua aztertuz.

Oso garrantzitsua da aurrezkiaren helburua zein izango den ezartzea eta zure beharretara hobekien egokitzen den produktua bilatzea

ALDIZKAKO AURREZPEN-ASEGURUAK

Aldizkako aurrezpen-aseguruak zer diren

Halako aseguruetan ekarpenak edo primak aldian behin ordaintzen dira; hau da, aurrezki gutxika eraikitzen da.

Aldizkako aurrezpen-aseguruen abantaila nagusia zein den

Malgutasuna. Izan ere:

- Pertsona bakoitzari hobekien egokitzen zaion erritmoan aurrezteko modua ematen dute.
- Ezartzen diren hilabete guztietarako eta urte guztietarako kopuru jakin bat modu sistematikoan aurrezten da.
- Ohiz kanpo ere aurrez daiteke; hau da, urteko une jakinetan ekarpenak eginez (adibidez, aparteko ordainketak edo ordainsariaren hobariak jasotzen direnean).
- Ekarpenak geldiarazi daitezke, arrazoiren batengatik ezin ordaindu bada.
- Unera arte pilatutako kapitala erabil daiteke, guztiz edo parte batean bakarrik (aseguru-motaren arabera), behar izanez gero.
- Epe luzerako errentagarritasuna lortzea bermatzen du.

Zeren araberakoa izango den aldizkako-aurrezpen aseguruaren errentagarritasuna

Fiskalitatearen eta interes-tasa aplikagarriaren araberakoa izango da. Hiru motakoak izan daitezke: finkoa, kontratuaren hasieran ezarria edo aldakorra. Interes aldakorra bada, normalean burtsako indize bati atxikiko zaio.

Aldizkako-aurrezpen aseguruetan errentagarritasuna bermatuta al dago?

Kasu gehienetan gutxieneko errentagarritasuna bermatzen da eta, batzuetan, gainera, errentagarritasun osagarri aldakor bat ere bermatzen da, lortutako errendimenduen arabera.

PRIMA BAKARREKO AURREZPEN-INBERTSIO ASEGURUAK

Zer diren

Halako aseguruetan ekarpenak edo primak ordainketa bakarrean egiten dira; hau da, dirua behin bakarrik inbertitzen da polizan.

Prima bakarreko aurrezpen-inbertsio aseguru guztiek gutxieneko errentagarritasuna bermatzen al dute?

Oro har bai, baina badira beste produktu batzuk (egituratuak edo indexatuak, *unit link-ak*, etab.) balizko errentagarritasuna gertaera

jakin bat lortzera edo produktuari lotutako aktiboen edo funtsen errentagarritasunera baldintzatzen dutenak.

Baldintza betetzen bada, ezarritako errentagarritasuna aplikatzen da eta betetzen ez bada, aseguru bat denez, kapitala mugaegunean bermatuta dago (%100ean edo ezarritako ehuneko batean; adibidez, % 85an).

“Unit link” bat zer den

Bizi-aseguru bat da; haren bitartez, hartzailleak erabakitzen du inbertsioak non egiten diren eta, beraz, bere primekin horien arriskuak bere gain hartzen ditu.

Zein den prima bakarreko aurrezpen-aseguru baten eta inbertsio-funts baten arteko aldea

Inbertsio-funts batean, aurrezpen-aseguru gehienekin alderatuta, aurreztailea da bere profilaren arabera (kontserbadoreagoa ala arriskatuagoa) inbertsioaren arriskua bere gain hartzen duena. Modu horretan finantza-merkatuen eboluzioaren arabera emaitza hobeak edo okerragoak lor daitezke.

Inbertsio-funts mota ezberdinak konbinatzeko aukera ere badago, “inbertsio-saskia” delakoa osatzen dutenen artean, inbertsioen hegakortasunera egokitze modua emanez.

Inbertsio-funtsek iraupen zehatzik al dute?

Ez. Aurreztaile-inbertsiogileak nahi duenean erosi ahal izango ditu partaidetzak, eta behar duenean edo egoki irizten dionean saldu.

Bermatutako inbertsio-funtsak zer diren

Iraupen jakin bateko funtsak dira; hortaz, inbertitutako kapitala % 80 edo % 100 bermatzen da mugaegunean, eta errentagarritasun posible bat eskaintzen dute, normalean gertakari edo baldintza jakin bat betetzeari lotuta.

ERRENTA-ASEGURUAK

Ba al da kapitala gutxika erabiltzeko modua ematen duen prima bakarreko aurrezpen-asegururik, errenta baten modura?

Bai. Errenta-asegururik dira. Prestazioa aldizkako eta berehalako diru-sarrera bat jasotzean datza.

Zer errenta-aseguru mota dauden

- **Aldi baterako errentak:** Asegurudunari aldizkako errenta bat ordaintzea bermatzen dute, kontratuan ezarritako epe batean zehar.

- **Bizi osorako errentak:** Asegurudunari aldizkako errenta baten ordainketa bermatzen diote, hil arte.

Errenta-aseguruek zer helburu izan ditzaketen

Errenta moduko prestazioaren helburua diru-sarrera maila jakin bati eustea da, erretiro, ezintasun, alarguntasun, zurztasun kasuetarako eta bizi-estiloa babestea eska dezaketen gainerako egoera guztietarako.

ASEGURUDUNAREN BABESA

Hainbat kontsulta- eta erreklamazio-bide dago, zein herrialdean gauden. Normalean, aseguru-etxeek bezeroarentzako arreta-zerbitzuak izaten dituzte, kontsultak eta erreklamazioak kudeatzeko. Aseguru-etxe batzuek, gainera, asegurudunaren defendatzailea ere badute.

Oro har, herrialde bakoitzean aseguruak arautzen dituen erakundeak halako prozedurak artatzen ditu.



FAMILIA BABESTEKO DEKALOGOA

1 AURREA HARTU

Arrisku baten aukeraren aurrean, saihesteko edo ondorioak horren kaltegarriak ez izateko beharrezkoak diren bitartekoak jarri behar ditugu. Horretarako, eskura ditugun bitartekoekin, aurrez aurre topa ditzakegunak saihestu behar ditugu. Hala ere, badira gure kontrolari ihes egiten dioten egoerak (adibidez, istripu bat edo sute bat). Kasu horietan, aukerarik onena aseguru bat edukitzea da.

2 INFORMATU

Aseguru bat kontratatzean, prezioa ez da garrantzitsua den bakarra. Mesedez, balora itzazu aseguru-soluzio ezberdinak, ohiko beharren arabera, eta ezagutu itzazu estaldura eta zerbitzu guztiak.

3 AZTERTU

Garrantzitsua da polizan behar adinako kapital aseguratuak ezartzea; horretarako estali beharreko beharrak patxadaz eta zorrotz aztertzea gomendatzen dizugu.

4 BERRIKUSI

Aseguru bat kontratatu baino lehen, berrikus ezazu dokumentazio guztia eta argitu itzazu zalantza guztiak, zure segurtasuna eta zure familiarena horren mende baitaude.

5 AHOLKUA ESKATU

Edonola ere, parametro horiek guztiak baloratzen laguntzeko, profesional baten aholkua izatea gomendatzen dizugu.



6 ARTXIBATU

Gorde ezazu polizei dagokien dokumentazioa, baita aseguru-etxearekiko komunikazio guztiak ere.

7 EGUNERATU

Izan itzazu kontratuak eguneratuta, arriskuak aldatu eta eboluzionatzen dutelako. Zure etxeko edukia eta, seguruenik, diru-sarrerak ere, denbora joan ahala haziz doazen moduan, aldaketa horiek guztiak zure polizetan jaso beharko zenituzke estaldurarekin lasai egoteko.

8 KONTAKTATU

Jakinarazi iezaiozu aseguru-etxeari, ahal bezain laster, polizei eragiten dieten aldaketa guztiak: seme-alaba baten jaiotza, etxe- edo bankuko kontuaren aldaketak, etxeko konponketak, osasun-egoerak, etab.

9 EKIN

Ezbeharririk izanez gero, hauek dira jarraitu beharreko urratsetako batzuk: babestu, abisatu, sorotsi eta kaltea arintzen saiatu. Egoera kontrolpean dagoenean, ahal beste datu hartu behar dituzu, eta ahal bezain laster zure aseguru-etxeari jakinarazi.

10 FIDATU

Azkenik, sortzen zaizun edozein konturako, ez zalantzarik izan eta jar zaitetz zure aseguru etxearekin edo konfiantzazko aseguru-agentearekin harremanetan.

ARRISKUAK ETA ASEGURU-MOTAK

OSASUNA

ZURETZAKO ETA ZURE SENIDEENTZAKO
OSASUN-ASEGURUA

AUTOMOBILA ETA MOTORRA

ERANTZUKIZUN ZIBILEKO
ASEGURU ZABALDUA

HIPOTEKA BIZI-ASEGURUA

ETXE BIZITZA

ETXERAKO ARRISKU ANITZEKO
ASEGURUA

AURREZPENA/INBERTSIOA

AURREZPEN-ASEGURUA





EDOZEIN MOTAKO ISTRIPUA

ISTRIPU-ASEGURUA

ERRETIROA

PENTSIO-PLANA EDO EPE LUZERAKO
AURREZPEN ETA ERRENTA ASEGURUA

OPORRAK

BIDAIAKO LAGUNTZA
ASEGURUA

FAMILIARENTZAKO EGONKORTASUN EKONOMIKOA

BIZI-ASEGURUA

EHORZKETA-GASTUAK

HERIOTZA-ASEGURUA

Informazio gehiago hemen:



www.segurosypensionesparatodos.org

© FUNDACIÓN MAPFRE, 2016

Paseo de Recoletos, 23

28004 Madril (Espainia)

Tel.: +34 91 602 52 21

www.fundacionmapfre.org

© Argazkiena: Thinkstock, 2016

Lege-gordailua: M-1185-2016

Doako alea. Saltzea debekatuta.

Edukiak zati batean erreproduzitu daitezke, iturria aipatuz gero.

Gidaliburu honetan jasotako informazio guztia adibide orientagarri gisa egin da, gaur egun eskura dagoen informazioarekin eta ez du, inola ere, izaera loteslerik.

Fundación **MAPFRE**

Jarrai gaitzazu hemen:



www.fundacionmapfre.org